# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia | Iruña, 2016ko maiatzaren 31 | 79. ZK.

## A U R K I B I D E A

E SAILA:

**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoretza-taldea premiatzen da azterlan bat egin dezan sei hilekoko matrikula kentzearen erabakia hartu baino lehen, aldi iragankor bat aurreikus dezan sekuentzialtasun-formula ezarri baino lehen eta tasa akademikoak berrikus ditzan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoak dituen beharrizanei buruzko azterlan bat egin dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira eman beharreko baimenak eman ditzaten eta Ebro ibaiaren ibilgua garbitu dezaten. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeak bazter utzia (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxebizitza Alokairuko Poltsan sartzeko baldintzak alda ditzan. Mozioa erretiratzea (4. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, 2014-15 eta 2015-16 ikasturteetan hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleen kopuruari buruzkoa, datuak hizkuntz ereduen arabera xehakatuta, sare publikoan eta sare itunduan. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, herritarren erantzukizun fiskala eta iruzurraren aurkako borroka indartzeko foru lege bidez aurreikusitako hezkuntza-jarduketen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, industria-ekoizpenaren gorakadari buruz berriki eman diren datuak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Galdera, Tafallako Errekoleten eraikinaren zaharberritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean egotearen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuaren Europako Ordezkaritzan Europako gaiak direla-eta jasotako kontsultei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Galdera, Nafarroako Parlamentutik Europako bandera kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Galdera, Ecofin-en lan-taldeen bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, Aditech-ek Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorretik alde egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Galdera, Ordezkaritzaren web orria (http:na.bruselas.site/es) sortzeko eduki diren baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
—Galdera, Europako Ekintza Plana taxutzearen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
—Galdera, Nafarroaren nazioarteko planak eta Moderna Plana taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
—Galdera, Europako Ekintza Plana gauzatzeari begira Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzan dauden langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
—Galdera, Nafarroak Europako erakundeetan egindako jardueren prentsa-oharrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzak beste erregio batzuen Bruselako bulego edo ordezkaritzekin egindako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
—Galdera, Europako Ekintza Plana taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
—Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkariak nola eginen dituen bateragarri Erregioen Batzordean egotea eta Ordezkaritzako bere eginkizun teknikoak. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—Galdera, Europako Ekintza Planeko jarduketa-ildoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitalearen 30. urteurrena ospatzearen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—Galdera, premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzarako irakasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—Galdera, Oinarrizko Lanbide Heziketan ikasle etorkinak eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuetakoak artatzen dituzten Nafarroako ikastetxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
—Galdera, sendotze, orientazio eta laguntza programetan ikasle etorkinak eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuetakoak artatzeko irakasleak dituzten Nafarroako ikastetxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
—Galdera, murgiltze programetan ikasle etorkinak eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuetakoak artatzeko irakasleak dituzten Nafarroako ikastetxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
—Galdera, “Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategiaren Diagnostikoa Gaurkotzea” izeneko 2016ko martxoaren 30eko laburpen-dokumentuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).

**E saila:**
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoretza-taldea premiatzen da azterlan bat egin dezan sei hilekoko matrikula kentzearen erabakia hartu baino lehen, aldi iragankor bat aurreikus dezan sekuentzialtasun-formula ezarri baino lehen eta tasa akademikoak berrikus ditzan.

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoretza-taldea premiatzen da azterlan bat egin dezan sei hilekoko matrikula kentzearen erabakia hartu baino lehen, aldi iragankor bat aurreikus dezan sekuentzialtasun-formula ezarri baino lehen eta tasa akademikoak berrikus ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoretza-taldea premiatzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoan sei hilekoko matrikula kentzearen erabakia hartu baino lehen, azterlan bat egin dezan sei hilekoko matrikula unibertsitate-ikasketa guztietara orokortzearen onurei eta egokitasunari buruz, sistema horrek errendimendu akademikoa malguagoa egiten eta hobetzen duen aldetik. Azterlan horretan gainera ikasleen ordezkariekin izan beharreko negoziazio-prozesu formal baten ondorioak -txertatuko dira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoretza-taldea premiatzen du, “sekuentzialtasun-formula” ezarri baino lehen, aldi iragankor nahiko bat aurreikus dezan, saiheste aldera edozein erabakik eragina izan dezan gaurko ikasleengan, horrek ekarriko lukeelako norbanakoaren prestakuntza-ibilbideen malgutasuna murriztea eta ikasleek gehiegizko esfortzu bat egin behar izatea, bai akademikoa, bai ekonomikoa.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoretza-taldea eta Hezkuntza Departamentua premiatzen ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoko tasa akademikoak berrikus ditzaten eta tasa horiek murriztu daitezen lehen, bigarren eta ondorengo matrikulak egin ahala”.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoak dituen beharrizanei buruzko azterlan bat egin dezan.

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoak dituen beharrizanei buruzko azterlan bat egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoak dituen beharrizanei buruzko azterlan bat egin dezan hiru hilabeteko epean, eta eskolatzen diren eta etorkizunean eskolatuko diren ikasleen beharrizanei erantzuteko behar diren obrak gauzatu daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du eginen dituen jarduketen egutegia ezar dezan”.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira eman beharreko baimenak eman ditzaten eta Ebro ibaiaren ibilgua garbitu dezaten.

*LANDA GARAPENEKO, INGURUMENEKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira eman beharreko baimenak eman ditzaten eta Ebro ibaiaren ibilgua garbitu dezaten.

Legebiltzarreko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeak, 2016ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxebizitza Alokairuko Poltsan sartzeko baldintzak alda ditzan.

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2016ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Etxebizitza Alokairuko Poltsan sartzeko baldintzak alda zitzan, eta 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, 2014-15 eta 2015-16 ikasturteetan hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleen kopuruari buruzkoa, datuak hizkuntz ereduen arabera xehakatuta, sare publikoan eta sare itunduan.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2014-15 eta 2015-16 ikasturteetan hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleen kopuruari buruzkoa, datuak hizkuntz ereduen arabera xehakatuta, sare publikoan eta sare itunduan. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00146 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Informazio hori gehitu dugun eranskinean ageri da.

Iruñean, 2016ko apirilaren 27an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariek, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

# Galdera, herritarren erantzukizun fiskala eta iruzurraren aurkako borroka indartzeko foru lege bidez aurreikusitako hezkuntza-jarduketen egoerari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, herritarren erantzukizun fiskala eta iruzurraren aurkako borroka indartzeko foru lege bidez aurreikusitako hezkuntza-jarduketen egoerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

EH Bildu parlamentu-taldeak aurkeztutako 9-16/PES-00147 galderari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak bilerak eta harremanak izan ditu Nafarroako Foru Ogasunarekin, eta material diagnostikoak landu eta egokitzeko eta maila eta talde pilotu egokienak identifikatzeko fasean dago, hortik aurrera heziketa zibiko eta tributarioari buruzko material horiek didaktikoki ustiatzen hasteko. Aztertzen ari diren materialak lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako eta batxilergoko maila desberdinetarako dauden diseinatuta, eta honako gai hauek lantzen dituzte:

1.- Zertarako dira zergak?

2.- Nork ordaintzen dituen zergak?

3.- Zer zerga daude?

4.- Zer dira aduanak?

5.- Nork biltzen ditu zergak eta nork kontrolatzen aduanak?

6.- Noiztik daude zergak?

Hezkuntza-ekintza hauen ezarpena pixkanaka eginen da. Lehenengo fase batean, ekonomiarekin edo ekintzailetzarekin lotutako gaietan interes berezia eduki duten edo daukaten ikastetxeei eskainiko zaie, proiektuak lantzeko unitate didaktikoen edo materialen egokitasuna ebaluatu ahal izateko. Behin lehenengo fasea ebaluatuta, zabalpen edo ezarpen orokorrari buruzko erabakiak hartuko dira.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

---

## Galdera, industria-ekoizpenaren gorakadari buruz berriki eman diren datuak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, industria-ekoizpenaren gorakadari buruz berriki eman diren datuak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak 9-16/PES-00148 informazio-eskaria egin du, Industria-ekoizpenaren gorakadari buruz berriki eman diren datuak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatu beharrekoa:

Joan den urtekoa ekitaldi ona izan zen Nafarroako industria-sektorearentzat; izan ere, produkzioan % 2,3ko hazkundea eta % 2,4ko balio erantsia zuela itxi zen ekitaldia. Aurrerapenak nolabaiteko leuntzea adierazten du 2014. urtearekin alderatuta; izan ere, urte hartan lurraldearen hazkundea lideratu zuen. Hala eta guztiz ere, Nafarroako hazkunde industrialak sendoa izaten jarraitzen du eta ezinbesteko eginkizuna dauka lurraldearen ekonomiari sostengua emateko.

Duela egun gutxi batzuk, Estatistika Institutu Nazionalak Espainiako Erregio Kontabilitatea argitaratu zuen, 2015eko ekitaldiko datuekin eguneratua. Datu horietatik ondorioztatzen da Nafarroako manufakturen adarrek azken urte hauetan betekizun erabakigarria izan dutela, zeren eta unetxarrenetan jarduerari gutxiago kendu baitzioten Estatuko parekideek baino, eta errekuperazioaren fasean ekonomiaren liderrak izan baitira; izan ere, horren ondorioz Nafarroa 2008tik deshazkundetxikiena pairatu duten autonomia erkidegoen artean dago. Eta hori lortu du, gainera, bere berezitasun produktiboarekin, portaera onena izan duten eskualdeek daukatenaz oso bestelakoa, azken horietan zerbitzuek baitute pisu handia.

Datu hauek berretsi egiten dute Nafarroarentzat bigarren sektoreak daukan garrantzia; zehazki, manufakturen espezialitateak.

Fokua informazio koiuntural berrienean jarrita, Nafarroako industria-produkzioak, Industria-produkzioaren Adierazlearen bitartez neurtua, otsailean errekuperatu zen urtarrilean pairatu zuen murrizketatik, garraio-materialetan izandako % 25,4ko beherakadak eragindakotik. Urteko lehenengo hilabetean autoen fabrikazioan izandako beherakadak, 2015eko urtarrilarekin alderatuta % 29,4koa izan denak, adierazle orokorra beherantz arrastatu zuen, lantegian 2016ko hasieratik lan egindako orduen kopurua jaistearen ondorioz. Otsailean eta martxoan, turismo-ibilgailuen fabrikazioa berrabiatu da, % 9,9ko eta 6,7ko urte-artek aurrerapenekin.

Hilean turismo gehiago produzitzeak, halere, ez du lortu arintzea martxoko industria-produkzioan bete beherakada bat gertatzea, nekazaritza-elikagaien eta metalaren adarretatik heldu dena.

Urteko lehenengo hiru hilabeteetan, industria-produkzioak % 2,7ko jaitsiera metatu du 2015eko lehenengo hilabetearen aldean: paperaren, zuraren eta altzarien eta nekazaritza-elikagaien adarrak izan dira portaera gutxien txarra izan dutenak. 2016ko lehenengo hiruhilekoko Nafarroako Hiruhilekoko Kontabilitateak, zeina maiatzaren amaieran ezagutuko baita, ikusgarriago eginen du Foru Komunitateak urtearen hasieran izan duen industria-garapena.

Martxoan izandako atzeratzea gorabehera, datozen hilabeteetarako daukagun itxaropena nahiko positiboa da, zeren eta lurraldeko manufakturen ibilbideari eustea espero baita. Ikuspegi hori berretsita dator industriaren arloko enpresariek daukaten konfiantzarekin, zeina industria-giroaren adierazlean jasotzen baita; izan ere, hura egonkor mantentzen da, aurreikusitako eskari-zoroari esker, eta ez du kalterik nabaritu, urteko lehengo hilabeteetan ziurgabetasun orokorrak berriz ere gora eginda ere.

Halaber, aurten Nafarroako industriak izanen duen ibilbidea ibilgailuen fabrikazioan oinarrituko da, sektore horretatik albiste pozgarriak heldu baitira. Urte hasi zenetik, Volkswagenek jada lau aldiz berrikusi ditu gorantz 2016rako dauzkan produkzio-helburuak. Oro har, % 10eko hazkundea aurreikusi du urtarrileko aurreikuspenetik hona, eta horrela jarraituz gero autoen produkzioak ia 2015eko maila berari eutsiko dio.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

# Galdera, Tafallako Errekoleten eraikinaren zaharberritzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallako Errekoleten eraikinaren zaharberritzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tafallako Errekoletoen eraikinaren zaharberritzeari buruz (9-16/PES-00149). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Tafallako Kontzepzionista Errekoletoen komentua, garai barrokokoa, hormarte bikoitza eta bi altuera gehi estalki-artekoa dituen lau hegaleko eraikin batek, erdian patioa duenak, eta mendebaldean erantsita duen komentu-elizak osatzen dute. Hegoalderantz, baratzea dago, horma altu batek inguratua. Bertan eraiki egin da. Erakina Nafarroako Monumentu Katalogoan deskribatuta dago, III. liburukiko 478-486 orrialdeetan.

Tafallako Udalak duela hamar urte erosi zuen eraikina.

2009an, Ondare Historikoaren Zerbitzuaren bitartez, Nafarroako Gobernuak eraikinari buruzko

aldez aurreko azterlan batzuk enkargatu zituen, Tafallako Udalari eraikinaren zaharberritzeari buruzko erabaki egokian hartzen laguntzeko. Azterlan horietan, honakoak ageri dira: komentuen planoak egitea, deskribapen arkitektonikoa, eraikinari buruzko laburpen historikoa, eraikinaren patologien deskribapena eta eraikinaren distribuzioari buruzko azterlan bat, Tafallako eskualdeko zenbait zerbitzu hartzeari begira. Halaber, zundaketa arkeologikoak egin ziren, eta fatxada nagusiaren eta elizaren estalduren patologiei buruzko azterlan bat, non laborategiko analisi bat egin baitzen harrizko material kutsatuaren lagin bati buruz, eta, azkenik, lurrazpiaren ezaugarriei buruzko azterlan geotekniko bat.

Tafallako Udalari dokumentazio horren guztiaren kopia bat eman zitzaion.

Baldin eta Tafallako Udalak eraikina zaharberritu eta bertan eskualdeko zerbitzuak edo beste edonolakoak jarri nahi baditu, Ondare Historikoaren Zerbitzuak behar den aholku teknikoa emanen dio, zeren eta arkitektura interesa duen eraikin bat baita, eta, gainera, kasu honetan, baitu lehenagotik ere, aldez aurreko azterlan horiek eginez laguntza eman baitio.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

**Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16-/PES-00149), jakin nahi baitu Nafarroako Gobernua prest dagoen Tafallako Errekoletoen eraikina zaharberritzen laguntzeko, bertan hainbat zerbitzu (Mankomunitatea, EEZB, agiritegia, hileta zibilen aretoa…) zentralizatzeko eta Tafallako Udalaren eraikin horren garrantzia azpimarratu eta hari erabilera emateko asmoz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Parlamentu-galdearen edukiari begiratuta, eta Lurraldearen Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuari eskumenari dagokionez, esan beharra dago haren eginkizun eta eskumenak, abuztuaren 28ko 137/2015 Foru Dekretuak ezarri bezala, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoak dira, bai eta hirigintzaren kudeaketari buruzkoak ere, lurraldearen antolamenduko eta hirigintza tresnak erabiliz. Horrenbestez, ez du eraikinen zaharberritzearen arloko eskumenik eta, horrenbestez, ikuspuntu ekonomikotik, ez du aurrekontusailik horrelako jarduketak egiteko, eta balizko lankidetza teknikoaren ikuspuntutik ere zerbitzuari atxikitako langileek ez dute eraikuntza gaien arloko esperientziarik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

# Galdera, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean egotearen kostuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean egotearen kostuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00150). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko 2014ko azaroaren 1eko lankidetza hitzarmen bereziaren lehenengo gehigarrian, zeina 1. eranskinean igortzen baitizut, urteko 21.000 eurotan finkatu zen hitzarmenaren gehieneko kopurua.

Gaur den egunean, ez dago aurreikusita kokapena dela-eta inongo aldaketarik egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

# Galdera, Nafarroako Gobernuaren Europako Ordezkaritzan Europako gaiak direla-eta jasotako kontsultei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren Europako Ordezkaritzan Europako gaiak direla-eta jasotako kontsultei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00151). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Jasotako kontsulta kopurua aipatzeko modukoa da, Ordezkaritzak dauzkan baliabideak kontuan hartuta. Kuantifikatzen oso zaila da, zeren eta askotan pertsona fisiko edo juridiko bera baita kontsulta bat baino gehiago egiten dituena, eta ezinezkoa bailitzateke finkatzea kontsulta bera ala desberdina den.

Garrantzitsuenaren gisara honako hauek nabarmen ditzakegu: abian diren proiektuei buruzko kontsultak, eta haiek direla-eta eskatzea edo erraztasunak emateko edo laguntza emateko Bruselan bilera bat izan eta hartara ezin joateagatik; finantzatzeko aukerei buruzko informazio-kontsultak; Bruselako balizko harremanei buruzko kontsultak proiektuak garatzeko, edo bazkideak bilatzen laguntzea. Ingurumen Kontseiluaren

barruan autonomia erkidegoen koordinaziorako ezarri zen seihilekoan, egunero harremana izan zen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuarekin, eta jarraipen horretaz arduratu zen pertsona (aurreko gobernuak proposatua) fisikoki Bruselako REPE-Ren egon zen. Vanguard Erregio Berritzaileen Sareak informazio-ahalegin bat eskatu die zentro teknologiko guztiei, bai eta unibertsitateei ere; halaber, Aditechekin koordinatzeko beharra izan da. Europako Inbertsio Funtsaren (ESIF) funtsen finantzaketarako aukerei buruzko jarraipena ere egiten da, eta Interregi (Europe zein Arku Atlantikoa) nahiz beste programa zehatz batzuei buruzko informazioa bidaltzen da (nekazaritza-produktuen sustapena, justizia edo Europa herritarrekin programak). Halaber, maiz bilerak egiten dira Nasuvinsarekin, garraioarekin lotutako gaien jarraipena egiteko. Fitxa teknikoen lanketa, askotan, informazio-eskari zehatzengatik egiten da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## Galdera, Nafarroako Parlamentutik Europako bandera kentzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentutik Europako bandera kentzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00152). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Gobernuak errespetatu egiten ditu beste organo batzuek —oraingoan, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak— hartzen dituzten erabakiak, eta, horrenbestez, ez da sartzen kasuko erakundeak hartutako erabakietan, zeinek eragina baitute haren eskumen edo gai berekietan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

# Galdera, Ecofin-en lan-taldeen bilerei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ecofin-en lan-taldeen bilerei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00153). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaria Ekonomia eta Finantza Gaietako Ministroen Kontseiluaren "Jokabide-kodea" lantaldearen hiru bileretara joan da, 2015eko urriaren 21ean, 2016ko otsailaren 2an eta 2016ko apirilaren 12an. Bilera horiek guztiak Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuarekin koordinatu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

# Galdera, Aditech-ek Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorretik alde egiteari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aditech-ek Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorretik alde egiteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00150). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

2015eko abuztuaren 12an, Nafarroako Gobernuko kontu-hartzaile delegatuak zalantzan jarri du Aditechek eragindako gastuak, REPERen instalazioetan egoteak eragindakoak, ordaintzearen legezkotasuna (I. eranskinean horri buruzko txostena dago). Beste arrazoi batzuen artean, aipatzen du "izenpetutako hitzarmenek ez dutela modu agerikoan babesten pertsona horri (Aditech) esleitzekoak zaizkion gastuak guk ordaintzea, zeren eta ez baita Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzako kidea". Halaber, azaltzen du "espedientea ez dagoela behar bezala justifikatuta eta litekeena dela oker izapidetuta egotea; hori dela eta, une honetatik amaiera eman beharko litzaioke egoera horri eta Aditech-eko teknikari horren gastuak (edo Gobernuaren Ordezkaritzakoak ez diren beste pertsona batzuenak) ordaintzeari..."

Nolanahi ere, aipatu beharra dago Aditech-eko ordezkaria 2015eko ekainean joan zela REPER-eko instalazioetatik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariek, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

## Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00155). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Ordezkaritzaren webgunean zenbait esteka aipatzen dira, zeinak optimotzat jotzen baitira herritarrentzat interesekotzat jo diren programen zabalpenerako eta haiei buruzko informazioa emateko. Webgune horiek guztiek programen deskribapen bat badute, bai eta deialdiei eta intereseko hainbat informaziori buruzko informazio gaurkotua ere (fitxa teknikoak, Batzordearen ekimenen txosten laburpenak eta abar).

Parlamentari horrek aipatutakoaz gainera, Valentziako eta Eskoziako atariak jarri dira, bai eta bi operadore pribaturen estekak ere, interesgarriak izan daitezkeelakoan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## Galdera, Ordezkaritzaren web orria (http:na.bruselas.site/es) sortzeko eduki diren baliabideei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ordezkaritzaren web orria (http:na.bruselas.site/es) sortzeko eduki diren baliabideei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00156). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Atariak informazio gaurkotua dauka honako hauei buruz: programak, deialdiak (egunero gaurkotzen da), Bruselan dauden ekitaldi garrantzitsuen agenda, zeinetara askotan joaten baita Bruselako Ordezkaritza, albiste garrantzitsuak, fitxa teknikoak; halaber, Europar Batasunean dauden sare pribatu edo publikoei buruzko datu-base bat dago (800 baino gehiago daude). Horiek guztiak garrantzizko elementuak dira Europako esparruko proiektuak zuzen ezagutzeko eta prestatzeko. Gainera, erabiltzaileak aukera dauka gaiaren araberako informazioan izena emateko.

Webgunea sortzearen kostua 5.850 eurokoa izan zen, eta ez du inongo mantentze-gasturik, zeren eta datuen eguneroko kargatzea edo automatikoki egiten da, edo Ordezkaritzak zuzenean sartzen ditu.

Webgunearen helburu nagusia da Ordezkaritzak Bruselan egiten duen lana aditzera ematea, bai eta Nafarroako operadore edo enteei aukerak ematea ere. Hori dela eta, ingelesera itzuliko da, Ordezkaritzak horretarako baliabide ekonomikoak dauzkanean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkariari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkariari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00157). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari emandako eginkizun edo eskumenak 129/2015 Foru Dekretuko 29. artikuluan garatuta daude; hori dela eta, ordezkariak normalean Bruselan egoteko beharra dauka.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## Galdera, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean egoteari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean egoteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00158). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Galdera honi 9-16/PES-00150 erantzunean erantzun zaiola jotzen dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

# Galdera, Europako Ekintza Plana taxutzearen kostuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Europako Ekintza Plana taxutzearen kostuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00159). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Europako Ekintza Planaren zirriborroa egin da kanpoan inongo kontratazioik egin gabe; horrenbestez, ez du inongo gasturik ekarri. Zirriborroa 33/105 Foru Aginduaren bidez sortutako Ekintza Komiteari jakinarazi zitzaion. Foru agindu horretan esaten da ez duela inongo aurrekonturik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

# Galdera, Nafarroaren nazioarteko planak eta Moderna Plana taxutzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroaren nazioarteko planak eta Moderna Plana taxutzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko (UPN) Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu du (9-16/PES-00160) Nafarroaren nazioarteko planak eta Moderna Plana taxutzeari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Jotzen dugu Nafarroaren nazioarteko planak, pluralean, aipatzen dituenean, parlamentaria plan estrategikoei buruz ari dela, Nafarroaren nazioarteko plana nazioarteratze planari deitzen baitiogu. Guztietan aurreikusita dago eragile publiko eta pribatuek parte hartzea, modu desberdinetan, lanketaren une desberdinetan; kasuan kasu, lanmahaietan, S3· plataforma estrategikoa —horiek guztiak, S3 Zuzendaritza Komiteak eginen duen kontraste-lanaren barruan—, eta, azkenik, dagokion foru legean parte hartzerako aurreikusitako prozesuaren bitartez.

Moderna Planari dagokionez, zeina espezializazio adimendunerako estrategia gisa edo S3 gisa (ingelesezko Smart Specialisation Strategy) aipatzen baitugu, gobernantza-eredu bat badauka, non eragile publiko eta pribatuak baitaude bai Zuzendaritza Komitean, bai Plataforman ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 12an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

## Galdera, Europako Ekintza Plana gauzatzeari begira Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzan dauden langileei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Europako Ekintza Plana gauzatzeari begira Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzan dauden langileei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Oscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzari eta haren jarduerari buruzko zenbait gairi buruz (9-16/PES-00161). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Ekintza planaren jendaurreko fasea apirilean amaitu zen. Hemendik gutxira, behin betiko zirriborroa aurkeztuko zaio Ekintza Komiteari. Horrenbestez, gaur den egunean, horri buruzko erabakirik ez da hartu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## Galdera, Nafarroak Europako erakundeetan egindako jardueren prentsa-oharrei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

